

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO UDALAK HERNANIKO LANGILE, TXIRRITA, URUMEA, ARATZ ETA ELIZATXO IKASTETXEEI ESKOLA KIROLEKO PROGRAMA AURRERA ERAMATEKO BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK.

ARAUDI APLIKAGARRIA

1. Azaroren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra
2. Hernaniko Udalaren diru-laguntzak emateko araudia
3. 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, 2022ko abenduaren 12ko Osoko Bilkuran onartua (2023/01/12ko 3 zkiko. GAO)

TXOSTENA

Hernaniko ikastetxeek Eskola Kiroleko programaren barruan beraien ikasleei eskaintzen dizkien ekintzak eta jarduerak, kalitatez egin ahal izateko, dirulaguntza ematen da.

Dirulaguntza deialdia aurreikusita dago 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. 5. lerro estrategikoa kirolaren sustapena da. Besteak beste, helburu hauek ditu: herritar guztiei beren kirol-jarduerak asetzeko aukera ematea, eta bizi-kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol-erakunde eta elkarteekin elkarlanean.

Dirulaguntzak emateko irizpideak datoz Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean, haren Erregelamenduan eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudian ezarritakoarekin. Hala bada, aipatutako Legearen 17.3 artikulua ezarritako gutxieneko alderdiak zehazten ditu, eta lehiaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzen ditu.

Diruz lagundu asmo den xedea ez dago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuetan barneratuta.

Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzeko organo eskuduna Tokiko Batzordea da, eta deialdiaren iragarkia eta dokumentazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) eta GAOn argitaratu behar dira.

Kontuan hartu da Herritarrentzako Zerbitzuen batzordean 2024ko maiatzaren 9ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

Lehena.- Hernaniko ikastetxeei Eskola Kiroleko programa aurrera eraman ahal izateko Hernaniko Udala dirulaguntza onartzea:

Elizatxo ikastetxea: 16.698,43 €

Langile Ikastetxea: 23.065,93 €

Txirrita ikastetxea: 5.776,70 €

Urumea ikastetxea: 6.459,93 €

Aratz ikastola: 6.524,54 €

Bigarrena.- Kurtso hasieratik ikastetxeak Eskola Kiroleko programa aurrera erameteko kostua beren baliabide propioetatik ordaintzen ari dira; horregatik, ikastetxeek Eskola Kiroleko programa aurrera eraman ahal izateko dirulaguntzaren 1. zatiaren, %80, ordainketa onartzea:

Elizatzko ikastetxea: 13.358,74 €

Langile Ikastetxea: 18.452,74 €

Txirrita ikastetxea: 4.621,36 €

Urumea ikastetxea: 5.167,94 €

Aratz ikastola: 5.219,63 €

Hirugarrena.- Eskola Kiroleko dirulaguntzen 2. zatia, %20, justifikazioa aurkeztean ordaitzea.

Kontua: 1.02.481.02.341.00 2023 "Dirulaguntzak Eskola Kirola"

Laugarrena.- Erabaki hau kontu-hartzailetzari jakinaraztea dagokion ondorioetarako. Udal aurrekontuaren gastu kreditu egokia eta nahikoa dago:

Kontua: 1.02.481.02.341.00. 2023

Kontabilitate dokumentua A: 2732 -2023

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko maiatzaren 16an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

